

Lagunekin Baratzean



2018/19

MEMORIA

MEMORIA LAGUNEKIN BARATZEAN 2018-19

Hauexek dira “Lagunekin Baratzean” prebentzio-programak egiten dituen bi jarduera nagusiak:

- 1) Haur hezkuntza eta Lehen hezkuntzako ikastetxeei programa –dagokion ikasturtean zehar- ikasgelan aplikatzeko laguntza ematea. Laguntza hori programa aplikatzeko behar diren materialak –Agipadek argitaratuak- ikastetxeei emanez gauzatzen da.
- 2) Txotxongiloaren jarduera, Haur hezkuntzako (5 urtekoak) eta Lehen hezkuntzako 1. eta 2. ikasle eta irakasleentzat. Ikasturte bakoitzean programari amaiera emateko egiten den txotxongilo ikuskizun horretan programa ikasgelan landu duten ikastetxeek hartzen dute parte.

Jarraian 2018/19 ikasturtean zehar Lagunekin Baratzean programan ikasleen aldetik izandako partaidetza datuen laburpena azalduko da eta programaren irispen portzentajea ikasturte horretako eskola errolda kontuan hartuta:

Ikastetxea	Maila		5 urte		1. maila		2. maila		Guztira ikasleak
	Neska	Mutilak	Neska	Mutilak	Neska	Mutilak	Neska	Mutilak	
Belaskoenea	4	22	11	14	8	15	74		
El Pilar	26	24	29	21	27	24	151		
Eguzkitza			22	28	22	28	100		
Toki-Alai	38	31					69		
Elatzeta			21	22	26	26	95		
La Salle	21	29	25	26	19	32	152		
Txingudi Ik.			36	37	34	37	144		
Guztira	89	106	189	201	173	219	977		

ESKOLA ERROLDA 18/19		Parte-hartzaileak	Programaren irispena%
5 urtekoak guztira	468	195	41,67
L.H. 1.maila guztira	554	390	70,40
L.H. 2.maila guztira	524	392	74,81
Guztira	1651	977	74,81

18/19 ikasturtean **977 neska-mutikok** hartu zuten parte, hau da, programa honek izan lezakeen populazio guztiaren %74,81k.

Irakasle parte-hartzaileei dagokienez:

Ikastetxea	Irakasleak		Irakasleak Guztira
	E	GE	
Belaskoenea	7	2	9
El Pilar	8		8
Eguzkitza	10		10
Toki-Alai	11	1	12
Elatzeta	7	1	8
La Salle	4	4	8
Txingudi Ik.	8		8
GUZTIRA	55	8	63

Horrenbestez, 2018/19 ikasturtean Lagunekin Baratzean parte hartu duten ikasle eta irakasleak batuz, ikus dezakegu programan guztira 1.040 pertsonak hartu dutela parte.

EKINTZAK

1) Ikastetxeei “Lagunekin Baratzean” programa aplikatzeko garaian laguntzea.

Nahiz eta ikastetxe guztiek duten programa ezartzeko materiala eskatzeko aukera; izan ere, aurreko ikasturtean behar zen material guztia berritu zenez parte hartzen duten ikastetxe guztietan, aurrean ez da material-eskaerarik jaso.

2) Txotxongiloa

Guztira, Bihar Taldeak “Txotxongilo” ikuskizunaren 4 emanaldi egin ditu:

- Txotxongiloren 2 emanaldi Amaia Kultur Zentroan egin ziren maiatzaren 29an, 9,30ean eta 11etan euskeraz.



- Txotxongiloren emanaldi 1 Txingudi Ikastolako Ekitaldi Aretoan egin zen maiatzaren 30ean goizeko 10:00etan, eta aurten ere Toki-Alai (Siutz) ikastetxe bertan, maiatzaren 30ean 15:00etan beste emanaldi bat eman zen.



Autobus Zerbitzua

Ikastetxeen eskura jarritako jardueran izena emateko orrian azaltzen zen haurrak Amaia Kultur Zentroraino eramateko autobus-zerbitzua eskatzeko aukera. Hezkuntza Sailaren irizpeak jarraituz, autobus-zerbitzu hori 2 kilometrotik goragoko distantziara kokatutako ikastetxeei bakarrik eskaini zitzaion. Jarraian adierazten da zein ikastetxeri eskaini zitzaion autobus-zerbitzua eta zenbat autobus kontratatu ziren:

Ikastetxea	BUS Kop.
Elatzeta	2
Toki-Alai	2
GUZTIRA	4

=====